

atera gorria!



bbk =

www.bbkk.es

BBK26=
abantaila eta deskontu pila

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA
doan

2005eko ABENDUA
83. zkia. DOAN

**Sorginakaz jantzan
Eguzki indarra etxean
Begoñako dorretxeak**

Xabier Kalzakorta

**"Euskarak daukan
gauzarik ederrenetarikoa
herri literatura da"**




Basarrateko baserriak (1930)

Horra hor, erretratu baten batuta, lengo Santutxu baserritarraren eta oraingo Santutxu hiritarraren irudiak. Atzean, Luis Briñas eskolako torre altua, obretan. 1933an amaitu eben Pedro Ispizua arkitektuak diseinatutako eskola. Aurrerago, baserri bi. Lelengoari XX. mendean bere ugazabaren izenaz esaten eutsoen: Etxeandia. Baina baita Hotel Carlton be bai, bertan jente asko bizi zalako-edo. Alderdi horretan beste baserri batzuk izan ziren: Ategorri txakolindegia, Jesusa Garairena,...



Norbaitek gure bazterrotako argazki zahar edo bestelako irudirik baleuko, eskertuko genduke kopia bat egin ahal izatea. Holan, denon gozamenerako atal hontan ipiniko dogu. Aldez aurretik, esker mila.



▶ Iritzia	4	▶ Mahatsberriak	20
▶ Eguzki indarra	5	▶ Kirolak	24
▶ Begoña eta euskerea	8	▶ Hezkuntza	26
▶ Dirulaguntzak	10	▶ Oketa mendia	27
▶ 18/98 sumarioa	12	▶ Iñaki Gaminderen liburua	28
▶ Elkarrizketa: Xabier Kalzakorta	15	▶ Horoskopoa/Agenda	30
▶ Inkesta	19		

Autogestiñoagaz datoz oingoan honeik Bertonekoak. Da modako kontue ixingo da hori autogestiñoana. Aittu ba!

Bat dago Basarraten erdixen kalefaziñoa autogestionaten dabilena. Eguzkidkek balkoien elegante joten dabela, panelak imini ta kalefaziñoa etzien reziboa pagau barik, ta etzieri su emon barik, ta butaneroari azkanengo pisure igonazo ein barik. Ez dakitt barriz, dabilen hotzagaz horreik aparatuek zelan dabiltezen ba!

Beste batzuek biajiek autojestionaten dauriez. Madrilerastien ez dakit zenbat biderrez, ta autogestionaute, hau de, norberan dirutik pagaute. Ejenploa hartu daurie geittu dotzienakandik, ze hareik be egin daurie [UTF-8?]juizidxoia autogestionaute total: delittuek, kulpabliek, pruebak, a ziertoaana juezan mailue bera be eurek ein dauriela. Hori de hori brikolaje judiziala!

Beste bat be badabil kontu autogestionauek, honeik kontu da istoridxe zaharrak direz barriz, ta honeik publikateko be autogestionaten direz: Batek asmau, kontau, ta entzuten dabenak be hurrengoari pasau. Ta horreik kontuek telebisiño barik ailegau direz gaurrate. Madrilekoak telebisiñotik ailegaten direz, baien halan da guztiz be protagonistiek bertora joan biher dau entzuten.

ten. Espektakulo autogestionaue entenditeko norberak be sartu biher ete dau autogestiñoan?

Da ez da fazile autogestiñoan kontue entenditen, ta gure gobernantiek ondo baino hogeto dakidxe. Porrejenploan, jubilauek ondo preparaute daoz autogestiñorako, ze kobraten daurien pagiegaz hareik autogestiñoan ganiien dana ta ez dana dakidxie, ta horregaz pagiegaz egunien-egunien jateko kapaz dana, jubilaue zentroagaz marabilek egin leiez.

Gaztiek, barriz, autogestiñoagaz zer dakidxe ba? Bizi guztidxe aitte da aman konture bizitte, zelan itxiko dotzegu gaztetxe gobernaten? Euren kuartoa be ez dakidxe gobernaten bata! Gobernante zuhurrek dekoguz ziertamentien. Ta honeiri Bertonekori ta halangoeri diru gitxidxo emoten badotzie horretarako da ba, autogestionaten ikisi deidxen, ta holan jubilateko edadera ailegaten direzenien eingo daurie dozena bat rebista, radixoa, telebisiñoa ta kafeteatroa be eurako bat be gastau barik. Ez dakizue gobernatiek zuengaittik zer egitten dabiltezen!

Ikusirik mundue norantza doan, neu be autogestionaten hasiko naz, balkoiko tiestoatan patatie, tabakoa ta mahatsa imini ta autogestiño totala!



Begoñako eleizateko oraingo Txurdinaga auzoan dogu Jesus Galindez kalea. Izan bere, kale hau luzea dogu, eta Txurdinaga auzoa inguratzen dau; beraren hasiera Zabalbide kaleko kantoi baten dago, hau da, Ur Gordailuaren aurrean.

Hortik aurrera egiten dau, eta Ikastetxe Alemaniarraren ondotik pasatzen da, ondorik Birjinetxe ikastetxeren aldamentetik igarotzen dau, eta Begoñazpi Ikastola eta Santa Maria Mikaela ikastetxea izan zana izten ditu eskuma-ezker; beraren amaiera, barriz, Ornila doktoarearen kalean dauka, Lanbide Heziketaren Lizeotik hurrean.

Galindez kalearen eretzean, esan behar dogu, 1983. urtea arte, kale honen izena izan zala 'Avenida Alcalde Javier Ybarra', ETAK hil eban Bilboko alkate haren ome-

nez. Urte hori ezkerro, Jesus Galindez Suarez idazle abertzale arabarraren omenez dauka izena ipinita. Idazle hau 1915. urtean jaio zan, eta 1956an galdu. Galdu zala dinot, ezik jazoera arraroak gertatu ziran orduan. Euzko Jaurlaritzako lehendakari Jose Antonio Agirre Lekuberen aholkularia zala, erbestera joan behar izan ebenean, Jesus Galindez Estatu Batuetara joan zan, eta eskolak emon Columbiako Unibersidadean, New Yorken. Unibersidade horretan egin eban doktorego-tesia, Trujilloren garaiaren ganean. Egin-eginean bere, Jesus Galindezek gogor eta sutsu, behin eta barrero, salatzen izan eban Trujillo diktadorea, eta beronek aginduta eukan euskal abertzalearen aurka jotzea. Itxura danez, FBIko agente batek bahitu eban New Yorken, hegazkin baten eroan Domingo Errepublikara, eta han modu basatian torturatutakoan galdu eragin eben haren gorpua.

GOTZON LOBERA REVILLA

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Euzko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta.:
berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega

ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Eneritz Ibarrodo,
Nerea Aburto,
Iratxe Ruiz,
Unai Cuevas,
Itxaso Perez

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Alberto Ugarte, Iñaki
Gaminde, Igor M. de
Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola,

Iñaki Aurrekoetxea,
Jose Otazua,
Benito Fiz

**ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:**
Koldo Urrutikoetxea,
Arrate Diez
LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98
ALE KOPURUA:
1.900

Eguzki energiaren aldeko apustu praktikoa

**MAHATSORRI BATEK BASARRATEKO BERE ETXEAN PARATU DITU
EGUZKI ENERGIA SORTZEKO PLAKAK**

Alfonso Ribote gazteak eguzkiari esker prestatzen du jatekoa, ur beroa edukiko du eta gainera etxean kontsumitzen duen energiaren herena produzitzen du. Energia aurreztu eta etxeko teilatuko panel fotovoltaiakoekin ahalik eta energia garbiena erabiltzen saiatzen da. Jendeak gehiegizko energiaren kontsumoarekiko kontzientzia ez duela dio Garoñako zentral nuklearraren aurkako koordinadorako kideak.

*Testua: Arrate Diez
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Elektrizista da, eta eguzki energiako enpresa batean egiten du lan, eguzki energia fotovoltaikoaren instalazioak egiten, hain zuzen. Basarrateko bere etxean bertan praktikara eraman du. Alfonso Ribotek, batetik energia aurrezteko tresnak eta bestetik energia produzitzen duten tresnak ditu. "Ez daukat -argitu du- beroa sortzen duen aparailu elektrikorik (estufa, kafetera, labe elektriko, sukaldea,

zuten. Zentzugabekeria handia da. Benetan ekologikoa dena eguzkiaz berotzea da".

BIOKLIMATIKOIA

Alfonso Riboteren ustez gako arki-tekura bioklimatikoan datza. Hau da, eraikinak egiterakoan irizpide bioklimatikoak eduki beharko lituzkete kontuan. Esaterako, eraikinak material osasungarriak erabiliz egi-

150 gradu izatera hel daiteke, hortik biltegi batera doa eta hemendik kontsumitzeko uretara doa beroa. Honela, eguzkiaren bidez izango du ur beroa, ehuneko ehuneko Aste Santutik iraila bitartean. Gainontzeko hilabeteetan sikiera gas gutxiago erabili beharko du, berotzeko oraindik zertxobait mantenduko duelako. Instalazio hori sei-zortzi hilabeteetan autonomoa da eta neguan gasa ala beste erregai baten laguntzarekin erabili behar da.

EGUZKI SUKALDEAK

Internet bidez saltzen ditu Bartzelonako terra.org fundazioak eguzki sukaldeak.



bitrozeramika, ura berotzeko termo elektriko...), elektrizitate bidez beroa sortzen duen oro ez da efizientea, beraz, kendu ditut".


Alfonsok esan digunez, "zentral termikoetan zein gas zentraletan energia elektriko garraiatzen dute eta gero elektrizitateaz bero sortzen dute. Beraz, maniobra horretan energia asko galtzen da. Hala, hobe da beroa gauden lekuan bertan produzitzea". Horregatik gasarekin berotzen du. "Gasa ez da ekologikoa -azaldu du-, baina bai ordea gutxien kutsatzen duena. Bero elektriko txarrrena da, murriztu beharko lukete, ez da batera eraginkorra baina horren ardura dutenek ez dute kontrolatu nahi".

Adibide argi jarri du, jarraian. "Zentral termiko bateko erregaiaren potentzia kalorifikotik elektrizitatera pasatzen dena herena da, eta ziklo bateratuko zentraletan %50 baino ez da. Beraz, gas zentral batean erretzen den gasaren erdia galtzen da, ez dute energia elektriko bezala erabil-

tea, ondo isolatuak eta orientazio egokia izatea, inguruko energia guztia ondo aprobetxatuz. Isolamendua eta beroa produzitzeko 'Trombe' izeneko hormak daude. Horiek hegoaldera begira jartzen dira, beroa har dezaten eta bero hori gero eraikinerantz heldzen da. Eraikitzerakoan oso aukera errazak daude. Ikusi besterik ez dugu antzinako zibilizazioek zergatik jartzen zituzten eraikinak eguzkira begira. Euskal baserriak, esate baterako. Egun esentzia hori guztia galdu dela uste du.

Urtarrilean Alfonsok ur bero sanitarioaren (ACS) instalazioa egingo du. Kolektore baten bitartez, eguzki plakek ura berotuko dute. Eguzkiak beirazko kutxa batean jotzen du eta

"Sukalde hori eguzkia denean erabiltzen dut. Eragozpen bakarra da jatekoa egiteko denbora gehiago behar dela. Kontzientzia apur bat besterik ez da behar. Oso eraginkorra izan daiteke, batez ere, baserri eremuan", esan du mahatsorriak. Izan ere, sukalde horien erakusketak egiten ditu. "Jendeak ez ditu ezagutzen baina deigarriena da funtzionamenduan ikustea". Begoñako udaltegian eguzki sukaldeen erakusketa egin berri du eta hurrengoak urtarrilean Alde Zaharreko La Bolsan eta Eko-



Etxean izango dira ikusgai. Ribotek elektrotresnak erosterakoan gutxien kontsumitzen dutenak aholkatzen dizkigu. "A eredu kontsumo gutxienekoa da, izan ere, orain A++ eredu atera dute. Horretarako galdetzea nahikoa da, elektrotresnek pegatintxo bat daramatelako. Garbigailuek, plater-ikuzkailuek, frigorifikoek, zein bonbillek marka horiek dituzte. "Niretzako, mikrouhina, plater-ikuzkailua...ez dira beharrezkoak, presaren kultura bizi garelako sortu dira baina ez dira ezinbestekoak", aitortu du Alfonsok.

"Arazoa da jendeak ez daukala energiaren kontsumoarekiko kontzientziarik. Kontsumo energetikoaren aurretik ingurugiroaren kutsadura dago, hondakin erradioaktiboak sortzen ari gara zentral nuklearrekin eta zentral termikoen CO2arekin klima

aldatzen ari gara eta hori guztia gure eguneroko kontsumoari eta gure bizimoduari lotuta dago. Beraz, energia kontsumoa murrizteko jakin beharra dago gehiegi kontsumitzen ari garela" gaineratu du Alfonsok.

Sareari konektatuta dagoen etxebizitzako instalazio fotovoltaiko bakarra dago Bilbon, berea. "Nik produzitzen dudana guztia Iberdrolari saltzen diot, nik kontsumitzen dudana ordaintzen diot baina painainak produzitu dudana ordaintzera behartuta dago. Orduko kilowatio kopurua hiru aldiz gehiago produzitzen dut gastatzen dudana baino. Instalazio fotovoltaikoak 20-25 urteko iraupena du eta nik 1,1kw-koa dudanez, bederatzi mila euro ordaindu ditut. Hasieran ez da hain merkea. Hala ere, saltzen dudana energiarekin gastatutako

beste ateratzen dut eta bederatzi urtetan guztiz ordaindu dut. Beraz, beste hamaika urtetan irabazi garbia edukiko dut".

Adibide bat kontatu digu. Madrilen jabekideen komunitate batekoak ados jarri dira eta "sareko konexio bat dute beraientzat, diru inbertsio bat egin dute eta badakite urte batzutan irabazia bueltan etorriko zaiela. Teilatua hegoaldera begira baduzu posible da instalazioa jartzea", segurtatu du Ribotek.

Alfonsoren etxeak erakusten du energia berriztagarriekin bizitzea posible dela bizitzea eta eguneko alferrikako gastu energetikoari aurre egiteko aukera bat da. Bere esanetan, "batzuek saldu nahi digute guk kontsumitzen dugun energia bertokoa dela, gasa adibidez Argeliari erosten diogunean. Beraz, atera kontuak".

Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33



Sugea taberna Iturriaga, 92
kazolatuak eta pintxo goxoak



PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!

BEGOÑA ETA EUSKERA

Begoñako lurretan jauntxo eta handiki askoren sorlekua aurki daitezke. Bandoen arteko gerretako leinu beldurgarri batzuk Begoñako dorretxetan babestu ziren. Urteak aurrera egin ahala Bilbora aldatu ziren eta merkataritzan ere sartu zuten musturra, baserritarrak zapaltzeari utzi barik. Oraingoan euren dorretxeetara hurreratuko gara.

BEGOÑAKO DORRETXEAK

Argazkiak: Javier Ybarraren 'Torres de Vizcaya' liburutik, Foru Liburutegian dagoen aletik, hartuta dagoz

Duda barik, Begoñako elizate zaharreko dorretxeen artean nagusiena 1704ko fogerazioan 'torre principal de Begoña' deitu zutena zen. Begoñako elizaren ondo-ondoan zegoena, alegia. Legizamon leinuarena izan zen eta, Iturrizak bere 'Historia de Vizcaya' liburuan azaldu zenez, Bizkaiko Jaunak 1382an sendi horretako ahaide nagusi bati eman zizkion Begoñako elizako patronatua -hamarrena eskuratzeko eskubidearekin-, errentak, eskubideak eta lehentasunak. Datu horrekin lotuta, pentsatzekoa da XIV-XV. mendeetarako Legizamondarrek dorrea egina zeukatela Begoñako elizaren ondoan.

Handikiok mende luzeetan zehar baserritarren azpiratzaileak izan ziren, hala hamarrenaren bidez nola baserrien errenten bidez, baina inoiz ere ordaina etortzen zitzairen. 1718ko matxinada handian, iraileko hiru egunetan Bilbo eta albo-herrietako



Zurbaran jauregia

herritar eta nekazariak matxinatu eta aduanak Gaztelako mugan barik Bizkaiko kostaldean ezartzea onartu zuten handiki eta funtzionarioei gogor eraso zieten. Eguretako baten matxin tropela Begoñara igo zen eta patroiazen dorreari su eman zioten. Hartziko hormak izan ezik, beste guztia kiskalita gelditu zen.

Legizamondarrek -Vargas markesaren eskura heldu zen dorrea- jauregia berriz ere eraiki zuten. Baina beste nekazari matxinada baten ondorioz -lehenengo gerra karlistadorea birrinduta gelditu zen. 1835eko

setioan sakeatu egin zuten eta Bilbo hobeto defendatzeko asmoz militar kristinoek -liberalek- zeharo desegiteko agindu zuten. Bere hormetako harriak Bilboko defentsako hesiak loditzeko erabili zituzten.

Ez zen ha Legizamondarrek Begoñan zeukaten dorre bakarra. **Boluetako dorretxea** ere leinu horrena zen. Javier Ybarrak bere 'Torres de Vizcaya' liburuan

kontatu zuenez, jatorrizko izena Kareaga dorretxea zen eta Gonzalo Moro korrejidoreak Inigo Lantiron jauntxoari kendu zion 1395ean 'alderdi horretako herritarrak bere krudelkeriez ikaratuta zeuzkalako'. Legizamondarrek erosi egin zuten. Leinuaren abar hori Gramosa markesaren eskutara heldu zen. Ybarrak dioenez, dorretxea egon zen lekuan XVIII. mendeko jauregi bat altxatu zuten. XIX. mendean Santa Ana fabrika egin zutenean, jauregia lantegiaren barruan gelditu zen. 1946an zutunik zirauen, Ybarrak idatzi zuenez. Kareaga edo Boluetako dorretxe bandoetako jauntxoaren osagai guztiak zeuzkan hurrean: ermita -Santa Ana-, errota eta ola.

Arbolantxako dorretxea da gure egunetara ailega den bakarra, hein txiki baten sikiera. Leinu horretakoek, Legizamondarrek eta, oro har, albo-herrietako jauntxo gehienek bezalaxe, Bilbora jo zuten eta han, hiribilduan, beste dorretxe bi eraiki arazi zituzten. Ybarrak zehaztu zuenez, Arbolantxan 'torre' izeneko baserria zegoen -eta dago- baina 1935ean itxuraldatu zuten, ez dauka dorrearen trazarik. Ondo-ondoan, XVIII. mendeko jauregia dago, hori ere zutunik, Arbolantxatarrek eraiki arazia.

Arbolantxatarren sasoian beste leinu batek be ospe eta sona itzela erdietsi zuen: **Zurbaran**. Haiek ere Begoñako askazia ziren, gaur egun izen horixe daraman auzokoak. 1704ko fogerazioaren arabera orduan Simon Mendietarena zen Zurbarango dorretxea. Ybarrak idatzi zuen 1946an zutunik zirauen



Arbolantxa jauregia

Ybarrak beste dorretxe bat be aitatu zuen, Trauku, Uribarriko goialdean eta Trauku baserritik hurbil. 1946an harresien hondarrak bertan zeuden. Beharbada hori izango da 1704an **Uribarri** izenagaz aitatutako dorretxea.

Ybarrak aitatu ez arren, Begoñan dorretxe gehiago izan ziren. Santutxu aldean, 1704ko fogerazioak hiru dorretxe erregistratu zituen. Alde batetik, **Gorostizaga** dorrea, orduan Sebastian Egiluzek administratzen zuena. Bestetik, **Landaburu** dorretxea, 1704an Francisco Antonio Ortiz de Velascoarena zen. Eta, azkenik, **Basarrateko** dorretxea, Teresa Larrearena. Fogerazioan zehaztu zuten, Larrea ere esaten zioten dorretxe horri, ugazaben abizenagatik duda barik.

eraikina dorre zaharren aztarnak zituela, baina XVIII. mendean jauregi bilakatu zutela. Bere informazioaren arabera, Zurbaran bat Bilbon merkataritzan aberastu ostean sortu zuen dorretxe hori. Bandoetako gerretan, sarri parte hartu zuten. Dorretxea Maurice Ravel eta Zumalakarregi etorbideak bat egiten duten lekua inguruan egon zen.

Ybarrak beste dorretxe bat ere aitatu zuen luze: **Markina** dorrea, Quintana jauregia ere esaten zitzaiona XIX. mendean. Gaur egungo Bilboko Udaletxearen ondo-ondoan zegoen, plaza dagoen alderdian. Dirudenez, lehenengo dorretxe zaharra jauregi bilakatu zuten. XIX. mendearen akabuan behera bota zuten, karlistadetan asko sufritu eta gero.



Kalderapeño
euska! kultur gunea

www.kalderapeño.com

txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

EUSKARAZKO HEDABIDE IDATZIEI DIRU LAGUNTZAK MURRIZTU DIZKIETE

Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak urte akabuan jakinarazi dute euren erabakia



2005eko diru laguntzak azaroaren erdian eta abenduan jakinarazi dituzte Eusko Jaurlaritzak eta Bilboko Udalak, hurrenez hurren. Gasteizko gobernuak euskarazko hedabide idatzi gehienei subentzioak murriztu dizkie. Bilboko Udalak ere beste horrenbeste egin du. BERTONEk aurten iaz baino 3.000 euro gutxiago jasoko du.

Testua eta argazkiak: Berton

Topaguneako aldizkarietako ordezkariak abenduan egindako prentsaurrekoan.

riok berri zuten. Deia, Gasteizko gobernuari ez ezik, Gasteizko Legebiltzarreko alderdiei ere helarazi zieten, EAEko aurrekontuak eztabaidagai eduki behar zituztelako aurrerantzean.

Eusko Jaurlaritzak noiz eta azaroaren 17an jakinarazi zituen 'Euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko' ataleko 2005eko diru laguntzen zenbatekoa. Aldizkari ofizialean abenduaren 1ean argitaratu zen. Dirua abenduaren azken astean banatu dute. Hedabide gehienok aurreko urteetako kopuruari eutsi beharrean murrizketa handiak sufritu dituzte. BERTONI, esate baterako, %50 gutxiago.

Herri aldizkariak sarritan esan dute diru laguntza horiek aspalditik hazi barik zeudela eta, berez, ez zetozeela bat errealitatearekin. 2002tik hona handitu barik zeuden eta, bere horretan utzita, bizitza garestitu dela kontuan hartuta, praktikan gero eta gutxiago ziren. Hedabideok, ostera, gehiago gara eta tiradak handitu ditugu. BERTONEk berak 1.000 aletik 1.800 aletara pasa da bitarte horretan. Topaguneako aldizka-

Aspalditik esaten izan dira Hego Euskal Herriko herri aldizkariak -Topagunea elkartean batuta- diru laguntzen sistema ez dela batere egokia. Izan ere, euskarazko hedabideek urte batzuetarako hitzarmenak aldarrikatu izan dituzte urteroko diru laguntzen ordez. Instituzioetako arduradunek, ostera, urteroko diru laguntzei eutsi diete.

Jarrera hori ikusita, 2004eko urrian, Topaguneak eskari zehatza egin zion Eusko Jaurlaritzari: diru laguntzak handitzea -2002 urtetik hona hazi barik dagoz eta-, lehenago banatzea -beti urte amaieran ebazten dituztelako, inoiz urtea amaitutakoan ere-, eta irizpideak aldatzea.

Urtebete geroago, 2005eko urrian, Topaguneak, euskarazko prentsa ia guztiarekin batera, hiru eska-



Euskarazko hedabideetako ordezkariak urrian dirulaguntzak handiagotzeko eskatu zutenean.

riek, guztira, %11 handitu dute zabalkundea 2002tik eta, honez gero, hedabide guztien artean 150.000 ale banatzen dituzte.

2006an zer gertatuko den ikusteko dago, lerro hauek idatzi orduko EAEko aurrekontua Gasteizko legebiltzarrean eztabaidagai dago eta.

BILBOKO UDALA

Eusko Jaurlaritzatik heldutako albisteak txarrak baziren, abenduaren lehenengo egunetan Bilboko Udalak bere erabakien berri eman zuen. Euskaingintzarako diru laguntza eskaerak hirukoiztu direla argudiatu dute udal arduradunek eta, horren ondorioz, elkarte guztiei murriztu diete laguntza. Kasu horretan ere, urtea amaitzear dago eta oraindik BERTONEk ez du diru hori jaso.

BERTON aldizkariaren kasuan, instituzio bien erabakiek ondorio serio bat ekarri dute: 2004an baino 3.000 euro gutxiago jasoko du 2005eko diru laguntzetan. Gainera, esan legez, erabaki horiek urte amaieran etorri dira, aldizkariak bere gastu gehienegienak eginda dauzkanean.

Hirugarren instituzio batek ere diru laguntzak ematen ditu: Foru Aldundiak. Horiek iaz bezalatsu mantendu dira 2005ean. Aldundiak ekainaren aka-

Topaguneako aldizkariaren eskaria

Alderdi politikoei eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariari egin nahi dizkiegun eskariak:

Tokiko hedabideok ziurtasuna behar dugu lanean jarraitu ahal izateko. Tokiko hedabideok euskaldunon etxeetara tokiko informazioa euskaraz eraman nahi dugu, ahalik eta gehienengana helduz, euskarazko hedabideak kontsumitzeko ohitura bultzatuz eta autonomiaz diharduten euskarazko erreferente informatiboak sortuz. Sektoreak laguntza egonkor eta jarraitua behar du, gure eginkizuna jarraitua eta epe luzekoa baita.

Eusko Jaurlaritzak euskarazko hedabideen diru-laguntzen banaketaren politika aldatu beharra du. Urteak urterako aurrekontuak aztertuta, datuek sektore batzuetan gero eta diru gutxiago aurreikusten dela esaten digute, eta ez da nahikoa euskararen garapenean urrats esanguratsuak emateko.

buan ordainduta zeuzkan diru laguntzok. Garrantzitsua da, berauek hiruretarik handienak dira eta.

AURRERA BEGIRA

BERTONEk hiru diru iturri nagusi dauzka: publizitate sarrerak, harpidedun talde batek bere borondatez ordaindutako kuota eta hiru instituzioen diru laguntzak. Murrizketa handia bada ere, BERTONen

proiektua ez dago arriskuan. Zortzi urte eta gero, sendoa da. Diru laguntzen gora behera horrek eragiten duena da segurtasun eza, asmo berriak mantsotzea eta egunerokoan arazo praktikoak.

Aurton, BERTONEk proiektu eta ideia berriak jorratu ditu. Besteak beste, irailetik hona aldizkaria on-line dago eta zenbaki zaharragoak ere interneten eskegitzeko asmoa dago. Izan ere, 2005eko zenbaki guztiak sarean eskuragai daude.

Bestalde, badago hitzen eta ekintzen arteko alde itzela kasu honetan. Eusko Jaurlaritzak berak Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN) diseinatu du. Bilboko Udalak onartu eta gure hirian abian jarri gura du. Bada, plan horrek giltzarri jotzen ditu euskarazko hedabideak. Deklarazio horiek eta azken erabakiok ez datoz bat.

ORAIN HERRIA
ORAIN BAKEA

RESPECTO A LA
RESPECT DE LA **DECISION** DE LA CIUDADANIA VA
DES CITOYEN(NE)S BASQ

18/98 MAKROSUMARIOAREN HISTORIA TXIKIA

Urte asko itxaroten eman ostean, zazpi mahatsorri Madrilen epaitzen ari dira

Astean behin furgonetan sartu eta Madrilerara doaz. Han hiru egun ematen dituzte, Casa de Campo parkeko etxe baten egunez eta Madrilen bertan lo eginez gauaz. Azaroan hasi ziren horrela eta, pronostikoak betetzen badira, maiatza edo ekainera arte segi beharko dute horrela. Urte asko pasatu dituzte zain -batzuek zortzi urte- eta euren buruen gainean urte andana bateko kartzela zigorraren mehatxua datza. 18/98 makrosumarioko auzipetuak dira. Eurretatik zortzi, mahatsorriak.

Testua: Nerea Aburto
Argazkiak: Iñigo Azkona eta Berton

Juan Pablo Dieguez, Segundo Ibarra, Jose Luis García, Inmaculada Berriozabal, Jesus Mari Zalakain, Patxi Gundin, Olatz Egiguren, Ruben Nieto, Olatz Carro, Gotzon Amaro, Leire Idoiaga, Ibon Arbulu eta Julen Larrinaga. Euskal Herriko beste izen askorekin osatzen den zerrenda bateko mahatsorrien izenak dira. Eurretatik bi kartzelan daude (Ibon Arbulu eta Ruben Nieto); denak gazte mugimenduaren, Udalbiltzarren, amnistiaren aldeko mugimenduaren, Egunkariaren eta Batasunaren aurkako auzietan edo 18/98 izeneko sumarioan daude. Eurretatik zortzi azken horretan auzipetuta

daude eta lehengo azarotik batek daki noiz arte astero-astero Madrilen egon beharko dute, tribunalaren aurrean. 2002 urtean Baltasar Garzón epaileak 18/98 sumarioa itxi zuenetik, bere sei ataletako auziperatuak egunen baten epaiketa egingo zela jakinda bizi izan dira. 2005ko azaroaren 21ean epaiketa hasi eta gero, hirurogei bat pertsonen euren familia, lana, lagunak, hiru egunez Euskal Herrian utzi eta Madrilen bizi dira. Olatz Egiguren eta Patxi Gundin, sumarioan Ekin kasuagatik prozesatuta, astelehenero furgonetan sartu eta Madrileko Casa de Campo parke-

ko etxe batera doaz, epaiketara. "Inposaturiko errutina" berri horretara egokitzeko ahalegina egiten dute, baina epaiketaren izaera politikoa euren testigantzarekin agerian utzi nahi dute.

BIZIMODU BERRIA

Olatz, Patxi eta beste auziperatuen bizitza epaiketarekin batera aldatu dela pentsa badaiteke ere, ezin da ahaztu askoz ere lehenagotik zeharo baldintzatuta izan dutela euren bizimodua. Olatz Egigurenek horrela adierazi du: "Behin-behineko egoera baten bizi izan gara aspalditik. Sumarioaren instrukzioa 2002 urtean

bertin

itxi zen, uda aurretik, eta geroztik: udazkenean badator, udaberrian etorriko da, uda eta gero izango ote da... ibili gara. Eta hori pertsonal mailan hipoteka bat izan da, epe laburreko perspektibarekin bizi izan garelako, inolako planik egin ezinik, ez lanerako, ez familiarako".

Alde horretatik, lasaitua ere hartu dute. "Zentzu baten, nahiz eta inork ez zuen epaiketarik nahi, ez pertsonal mailan ezta politikoki begiraturata be, jakinda epaiketa egingo zela, heldu denean denon sententzia izan da ia behingoz egiten den eta gainera kentzen dugun", zehaztu du Egigurenek. Euren artean ere alde bada, "lehenengoek orain dela zortzi urte hasi zuten eta zortzi urtetan bakoitza zelako egoeratan bizi izan den ikusita (hamabostero, astero, edo egunero sinatu beharra; estatu espainolek irten ezina...), ba nolabait esatearren, epaiketaren prozesua lehenagotik hasita geneukan".

Dagoeneko hilabete pasatu da 18/98 + sumarioaren epaiketa hasi zenetik, eta aste hauetan, prozesatutako 60 pertsonen, euren bizitza guztiz aldatu eta baldintza berriei egokitzen ibili dira. Asteko hiru egunetan etxetik kanpo egon beharra, bidaiak, lana, dirua...ez dira gai gozoak. "Egia da epaiketa hasi denetik denbora gutxi dela oraindik eta lehenengo aste hauetan horretan gaudela, egokitzen, bai gu geu eta hemen uzten duguna ere", azaldu du Olatz Egigurenek. "Errutina inposatu baten barruan

bizi gara, -esan du Patxi Gundinek, ordu zehatzekin gora eta behera. Momentu gehienetan batera mugitzen gara, beste batzutan talde txoetan, oso gutxitan bakarka, nahigabe bakarrik zaudenean ere buruan pelikula bera darabilzulako. Beste alde batetik, Euskal Herrira zatozenean ere ezin duzu gai hau burutik kendu,



Patxi Gundin eta Olatz Egiguren

hemen jendeak gugatik interes bat baduela eta zer gertatzen ari den jakin nahi duela ikusten dugulako. Han eta hemen errutina".

Ume txikiak dauzkatenentzat egoera larriagoa izaten ari da, jakina. Eta ondorioak larriak dira arlo ekonomikoan. "Batek baino gehiagok

lana galdu du, beste askok eszedentziak eskatuz lanpostua salbatzen saiatu dira... eta gero karga ekonomikoarena dago", gogoratu du Patxi Gundinek. "Bai, karga ekonomikoarena oso gogorra da eta agerian utzi nahi dugu. Beste alde batetik egunerokotasunaren aldaketak, bakoitzak badu bere lana, familia... bakoitzak bere gauzak dauzka eta moldatu behar izan ditu", segitu du Olatzek.

EPAILEEN JARRERA

Madrilen egoten diren hiru egunetan, ordirik gehienak auzitegian ematen dituzte. Epaileen jarrera 'erasokorrek' salatu dituzte Olatz eta Patxi: "Epaiketa hasi aurretik esan ziguten bista izango zela astelehen eta asteartetan goiz eta arratsalde, eta asteazkenetan goizez baino ez. Hori inoiz ez da bete eta orain arte nahiko desastre izan da. Ordu baten konbokatzen gaituzte baina gero tribunala bera beranduago dator. Beste batzutan, astelehenean arratsaldeko zazpiak arte zain izan gintuzten itzultzailek ez zegoelako. Haien dinamikaren menpe gaude, ordutegiak orain arte oso aldakorak izan dira eta ez dute inolako errespeturik adierazi zentzu horretan", esan du

Olatzek. Auzipetu guztien deklarazioen txandan dago orain epaiketa -gabonen ostean jarraituko duena eta "horrenbeste garenez, azkenean epaiketa luzatuko da. Legez, antza denez, epaiketa osoan egon behar dugu, baina defentsak sei

ERTON D U G U

ERTON D U G U

santutxuko Iturriaga 96.
herriko taberna
Gosari bereziak:
Kafeta + pinhoak 1,50 €.
Euskal Herria
AURRERA!!

Garaizar
JESUS GARINDEL Nº 10
TEL: 94 478 92 95 GARAIZAR - BILBO

Agapi
Dekorazioa eta eskaiola
Sabai akustikoak eta eskaiolazko dekorazio deribatuak
Jose Migel Barandiaran Aierbe 1, 1 ezk
Tlfnoa: 944336916 -Sakelekoa: 651709114
SANTUTXU - 48006 BILBO

zatitan egiteko eskatu zuen. Ez zuten onartu, baina bi astez izan gintuzten erantzunaren zain, ezer jakin gabe", argitu du Gundinek. Beste arazo bat ere ekarri dute deklarazioek. "Guk, auzipetuok, akusazio fiskalari, herri akusazioari edo defentsari erantzuteko aukera daukagu. Gure aukera defentsari bakarrik erantzutea izan da baina ez digute eman tartetik horrela zergatik egiten dugun azaltzeko. Epailleek 'politiko' hitza entzuten duten momentuan urduri jartzen dira eta bortizki mozten gaituzte", jarraitu du Patxik.

Eta Olatzek: "Euren legea da azalpen hori garrantzitsua izan daitekeela esaten duena, epailleak sententzia emateko orduan kontutan izan beharko duelako. Isilarazi dituzten argudioak edo deklarazioak muinera joan direnak izan dira. Euren dena ETArekin lotu nahi dute eta horrek derri-gorrez garamatza sakonean epaiketa hau, gazteen kontrako epaiketa bezala, inpulso politiko bat duela azaltzera. Hauek ez dira juridikoki epaiketa normalak, akusazio zehatz eta frogekin. Epaiketa hauek politikoak dira ideiak eta Euskal Herriaren alde lan egitea epaitzen direlako. Helburu hori lortzeko epaiketa bat muntatu dute eta orain arte txapuz bat iriteten ari zaie."

GIRO ONA

Auzipetuen arteko giroa ona ei da, tentsioak eta nekeak arintzen elkarri laguntzen diote eta. Olatzen hitzetan, "berbetan askotan egoten gara, eta egun baten ni haserreago nago baina beste bat ez, eta horrek eramangarria-



Makrosumarioaren kontrako Kaiera Santutxun

"Euskal Herriaren aurkako epaiketa da"

Madriren ematen dituzten hiru egunetan Euskal Herriaren epaiketari buruz esaten dena ezagutzeko aukerarik ez duten arren, biek aipatzen dute euren ustetan momentuz gaiaren nahikoa jarraipen aproposa egiten ari dela euskal hedabideetan.

"Nire inpresioa da -esan du Gundinek- gaia bere testuinguruan kokatzen ari direla. Erakusten ari dira hau ezinbestean epaiketa politikoa dela eta hori da gure ustez salatu beharreakoa. Hala ere, Euskal Herriko politikoren baten ahotik denak ez garela berdinak eta sako berean onak eta txarrak daudela entzutea oso gogorra da. Argi dagoenean jarduera orokor bat zigortu nahi dutela eta ez indibidualki egindako gauza zehatzak, lotsagarria deritzot agintariek horrelakoak esatea".

"Lehenengo aste hauetako kronikak epaimahaiaren jarrerarekin izan dute zerikusia batez ere. Baina guk nahiko genukeena hortik harago joatea da", zehaztu du Olatzek. "Oraindik epaiketa luzea da, eta tribunalak sorpresa gehiago ez badigu ematen behintzat, egongo da aukera bestelako kronika batzuk egiteko ere. Azken finean, egia da Euskal Herriaren badagoela giro bat, epaiketa hasi aurretik ere, baina Euskal Herriaren kontrako epaiketa bat dela eta ez han gaudenon kontrakoa barneratzea garrantzitsua da. Gure testigantzak agian balio izango du han gaudenok garai batean lan bat egin izanagatik delako, baina horrek ez du esan nahi beste batzuei tokatuko ez zaienik".

goa egiten du dena, oreka sortzen saiatzen gara. Orokorrean jendearen animua ona da eta horrekin egingo dugu aurrera, nik uste dut indarra badagoela". Jakina, egunak izaten dira, "batzutan aspertuta gaude, beste batzutan haserre, baina bakoitzak baditu tentsioak ateratzeko bere moduak: batzuk korrika egiten dute goizean, beste batzuk paseoan ibil-

tzen gara. Baina, beste alde batetik, denok nahiko kontziente ginen nora gindoazen, mentalizaturata geunden, eta horrek alde lagundu egiten digu. Gainera agian epaiketa uste genuena baino luzeago izango da eta denok dakigu ezin garela hirugarren astean kea botatzen hasi. Nekatuko gaituzte baina ez gaituzte etsiaraziko."


Badira zenbait gertakizun, epaiketa honek duen berezko oihartzunari arreta puntuak gehitu dizkionak. Abenduaren 12an auzitegi aurrean Falangeko kide batzuk irainka hartu zituzten, astebete geroago auto istripua gertatu zitzaizen (zazpi auzipetu zaurituta). "Arratsaldean agertu ziren Falangekoak auzitegi aurrean. 30-40 bat ziren eta oso urduri zeuden. Eskandalu handia muntatu zuten, oihuekin, banderolekin, ... harriren bat ere bota zuten, gu sartu arte (arkupetik pasatu eta identifikatu bitartean kanpoko eskaileratan egoten gara) irainka eman zuten", kontatu du Patxik.

"Gure kontra ez ezik, abokatuen kontra eta ETBkoen kontra ere izan zen. Astelehenean atera ginenean gure abokatuek bueltako bidea ziurtatzeko eskatu zuten eta polizia dena lasai zegoela ziurtatzeko behintzat aurretik joan zen. Garrantzitsuena talde potoloa garela da eta zenbakiak babes ematen digula", aipatu du Olatzek. "Bai, talde handia garenez, babestuta gaude. Horrek joan-etorrietan arazorik ez izaten laguntzen digu. Madrilko erdigunetik kanpo gaudenez ere, lasai samar gabiltza", nabarmendu du Patxik.

e
l
k
a
r
r
i
z
k
e
t
a

XABIER KALZAKORTA

"Euskarak daukan gauzarik ederrenetarikoa herri literatura da"



Markinarra da Xabier Kalzakorta. Baina badira hamazazpi urte Santutxun bizi dela. Hain justu, urte horiek herri literatura batzen, aztertzen eta zabaltzen eman ditu. Deustuko Unibertsitateko irakasle, Euskaltzaindiako Herri Literatura batzordeko idazkari, Kalzakorta kantu, ipuin, koplak eta esaera zaharren munduan modu natural baten murgildu da. Desagertzeaz dagoen altxor baten azken aleen bila.

*Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona*

Nondik datortzu herri literaturareki-ko interesa? Txikitatu kantu eta kontakizun asko entzunda zaude?

Ez dot uste gehiegirik be. Gure gurasoak bete-betean euskaldunak dira. Hau da, nik inoiz ez dotset gurasoei euren artean erdarazko berba bakarria be entzun. Generazino monolingua izan dira aita eta ama, euskaraz bakarrik. Aita bazan boz onekoa, santa esketan koplari ibiltzen zan, eta beharbada aitagatik izango da. Aita eta ama biak oso berbaldun onak, oso hiztun onak gaur esaten dana. Nik uste dot euskarak berak daukan gauzarik ederrenetako bat bere herri literatura izan dala: bere kanituak, esaera zaharrak, balada zaharrak, ... bertsoak be bai, beste era bateara. Mundu hori da euskaraz erakargarrienetako. Apur bat horretan sartu ezkeru, ia dena gusta ahal jaku. Alor zabal eta gustagarria da. Ni ez naiz batere originala, hori ezagutu dot, Euskal Herriko ingururik euskaldunenean bizi izan naz, -gerora konturatu naz- eta hor bizi ezkeru nahi barik etorten jatzu, gauzarik naturalena da. Markinar batek fisika kuantikoa ikasteko ahalegin bat egin behar du baina hau berez etorritakoa da.

Zenbat urte daramazu herri literatura ikertzen?

Apur bat sakondu, azken hamabost urteotan. Horrek ez du esan nahi asko sartu nazenik, baina euskara modu batera bizi izan dogunontzat berezko gauza bat da, berez datorren mundu bat. Hori ikusi dot, hori gustatu jast eta, ahal bada, gustatzen jakuzan gauzak lantzea gozoagoa eta samurragoa da. Nire kasua hori da.

Adineko jendearekin hamaika elkarriketa eginda egongo zara...

Bai. Ez naz larregi ibili, baina batez be Bizkaian ibili naz. Eta ikusi badot informante ona dala, ahalegindu naz zer dakiten, zer mundu ezagutu daben, zeren transmisorea dan, ... horretan ahalegindu naiz. Baina ez dot gehiegi entrebistatu. Eta pena da ze mundu hau derrepentean joango da. Gure generaziotik aurreko generazina sekulako aldea dago. Euren beste mundu bat bizi izan dabe, ia elebakarrak izan dira hainbat ingurutana eta hori desegitera doa, uste baino lehenago. Hori behin eta barriro ikusi dogun kontua da.

Agortzekotan dagoen iturria da...

Bai. Egia esanda, beti izan da holan. Ikertzaile askok esaten dabe joan zirela ez dakit norengana eta beste horrek esan eutsela: 'bai, nik baino gehiago ekien beste hark'. Baina beste hori beti joanda dago.

Mito bat izan liteke?

Neurri baten bai, baina egia be bada. Suerte txarrarena. Hilzorian dagoen transmisino da. Transmisino guztiak hilzorian dagoz. Erdal munduan dabilzanek ere gauza bera esaten dabe beti. Hau da, transmisino horren galera ikaragarria da leku guztietan, baina gurean nabarmenagoa da euskera bera galzorian dagoelako, neurri batean. Edo euskera guk ulertu dogun moduan: elebakarra, bizitza guztia euskeraz eginda, ... Hori galzorian dago eta horregaz nahastean gurea kasu askoz beldurgarriagoa da.

Gu beraz ez gara izango alor horretan etorkizuneko informanteak. Zer kontatu gutxi edukiko dugu...

Beharbada batzuk euki badabe jasotzeko grina hori, beti izango da hobe. Baina alde ikaragarria izango dala, hori bai. Ez dago dudarik.

Artxibo eta paper zaharren artean be ibiltzen zara?

Zer edo zer egin dot. Topatzen dodan guztia artxibatzen dot. Baina gauza handiegirik ez. Baladen munduan, esate baterako, artxiboetan egon diren beste aldaera batzuk, argitaratuta batzuk baina ez osorik, zatika argitaraturik baina nik bertsino osoa emon dot. Azkueren paperetatik hartuta esate baterako... Holako gauzak bai, baina lan gehiegirik ez.

Oraindik ere kantu zahar, legenda edo ipuin gehiago topa daiteke?

Kantuen mundua askoz be agortuago dagoela uste dot. Beharbada kontakizunen mundua ez hainbeste. Baina gaur askoz ahalegin handiagoa egin behar da ezer batzeko. Hori da kontua. Orain dala 50 urte hiztun on bati batzen jakona askoz gehiago zan gaur egungo 40 hiztuni baino. Iturri agortze hori, biziera aldatzearekin batera, beste mundu bat sartzearekin batera... hor dago. Atzo Iñaki Gaminderen 'Sorginakaz jantzan' esku artean euki neban. Hainbeste informanteri hartutako kontakizu-



nak dakartza. Askotan kontraera minioak dira: 'amak esaten euskun gauean ez urtetako ze gauean sorginak egoten zirela'. Beste batzutan kontraera luzeak dira. Ba hori da jasoten dana. Liburu hori bizitza guztirako da. Bizkai-ko herri asko agertzen dira eta orain polita da baina hori askoz be bitxiagoa izango da hemendik hamar edo hogeituru. Eta dagoen apurra dagoen ezkeru, gero eta preziatuagoa da, ze hemendik hamar urtera edo hogeituru ez da egongo. Agonia horretan, neurri baten, bizi gara. Esaldi famatu batek dino: barri emoi edo informante bat hiltzen danean biblioteka oso bat galtzen da. Lehen halan zan, pertsona batzuekin.

Gurea literatura gutxiko herria izan

da baina ahozko literatura aberatsa eduki ei du. Egia da?

Bai egia da, baina guzurrak ere bada. Esate baterako. Bildu dana beti da urria gauza konkretu batera jotzen dozunean. Emon daigun nahi dituzula euskarazko igarkizunak. Dena arakatuta ez dozu hogeituru folio baino gehiago biltzen. Baladekin hasten bazara ez dozu 45 balada tipo baina gehiago ikusten. Orduan, oso handia da, bai, baina gauza konkretuetara bazoaz oso txikia da. Hori era bateko tradiziozko literatura. Baina beste era batera pentsatzen badozu, hori da jaso den herri literatura. Baina badago beste herri literatura bat. Esate baterako, Txirrita batek kantatu zituen bertsoak. Berak sortuak dira. Txirritaren bertsoak liburu mardul batean


sartzen dira. Baina Txirritak kantatuko zituen guztiak ez dakizu zenbat liburu izango ziren baina berrogeita hamar liburu baino gehiago izango ziren, laurogei urte bizi izanda, asko kantatuta, ... Sehaska kantak. Zenbat sehaska kanta dauzkagu tradiziozkoak? Beharbada ez dituzu 30 folio beteko. Eta pentsatzen dozu: 'hau bakarrik bildu da?'. Baina pentsatzen badozu Euskal Herriko probintzia guztietan kantatuko zirela eta ama bakotzak erreperitorio bat izango ebalda... Hori genero intimoa zan, amaren eta umearen artekoa eta horregaitik ez da batu edo gitxi batu da. Soineko handi baten izpi txiki batzuk baino ez dira. Alde horretatik denak dira derrotistak. Ez bakarrik euskaldunak, herri literaturaren inguruan dabil-

zan guztiak... Gainera, batzuetan gauza bakar bat batu izan da eta gero konturatu dira beste genero batzuk ere interesgarriak direla baina erdi berandu da... Naufragio baten aurrean sentitzen zara, ia hondakinekin ibiltzen zara.

Esan izan da lehenengo folkloristak abadeak izan zirela eta igual herri-tarrek abadearen aurrean kantu edo kontu batzuk ez zituztela botako...

Bai, hori esan izan da, eta baleiteke hori. Berez erromantizismoarekin hasi ziren. Napoleonen gerra garaian alemanak hasi ziren eta olio tanta handi baten moduan apurka-apurka Europan zehar zabaldu zen. Batzen hasi ziren, baina batez be kantu historikoak eta era horretakoak: balada zaharrak eta

herriaren historia zaharrekirekin zerikusia ebenak. Hemen Euskal Herrian Francisque Michel hasi zen 1850ean, gero kantutegiak hasi ziren... Baina batze kontuetan 150 urteko tradizioa baino ez daukagu eta hori oso gitxi da. Ganera, ez ziran gauza asko batzen: lo kantuak ez ziren batzen, kopla zaharrak ez ziren batzen... Kantu historikoak eta era horretakoak baino ez. Eta hor be, huts handiak. Lelengo bilduman, esate baterako, ez da agertzen 'Bereterretxeren kantorea' eta geroago konturatu ziren. Istorio bitxia da. Badirudi beti biltzaileak itsumustuan ibili dirala. Begietan halako benda handi bat baleue lez.



'Bereterretxeren kantorea' aita-tu duzu. Sasoi baten Ipar Euskal Herriko kantuek ospe handia eduki zuten...

Lehenengo biltzaileak hor egon ziren. Francisque Michel unibertsitateko irakaslea zan eta ez zan euskalduna. Michelek, esate baterako, ez eban ipuin bat bera be bildu. Kantuak bai. Gero Sallaverry mauletarra, abokatu eta notarioa. Hori ere kantuak batzen ibili zan. Ondoren hasi ziren ipuinak batzen. Asko izan ziran euskaldunak izan ez arren, euskal altxorra kontutan hartu ebenak. Webster pastor anglikanoa...

Azkenaldion, oster, Bizkaikoak gehiago zabaldu dira: Hiru Truku, Oskorri, Amuriza Tapia eta Leturiagaz...

Bai. Hizkuntza bera izan arren, tradizioa ez da bera leku guztietan. Genero batzuk besteak baino hobeto gorde izan dira leku batean eta ez bestean. Kopla mundua batez be Bizkaiko izan da, balada mundua be bai. Gipuzkoan balada gitxi topako dogu baina bertsolaritzaren gune nagusia bertan dago.

Bizkaian lekuren bat ikusten dozu bereziki aberatsa?

Zenbat eta leku euskaldunagoa, elebakarragoa, babestuagoa eta kanpo eraginik libreagoa, hobeto. Betiko kontu hori, baserrietan euskera hobegoa gorde dala kolean baino, hori uler-

garria da ze hizkuntza bakarra izan dabe. Eta hizkuntza hori kulturagaz josia: lanabesak, prozesuak, langintzak,... euskaraz esplikatatu dabe. Holako lekuetan errazagoa da. Zenbat eta hizkuntza indartsuago egon, hizkuntz horretako tradizio literarioa indartsuagoa da. Beti da halan. Gero, jakina, badagoz pertsonak zaletasun edo gaitasun handiagoa daukanak, ezta? Memoria handikoak, joera gehiagokoak, ... Pertsona horiek izango dira leku horietan informazio gehien emongo dabenak. Normala da. Boz ona eta belarri ona badaukazu, kantu gehiago jakingo dituzu.

Gabon kantuen sasoian gaude. Bizkaian tradizio handia egon da eta 'Hator, hator' bera be Bizkaiko kantu bat ei da...

Gabon kantak era askotakoak dagoz. Batzuk dira etxean kantatzekoak, epeletan, familiarituen artean, .. Hor dago 'Hator, hator'. Eta beste batzuk eskekoak dira, etxez etxe kantatzen zirenak.

Horiek koplak dira eta Jesusen misterioa be agertzen zan. 'Hator hator' Azkuek batu eban Otxandion. Azkuek ez dakar gabon kanten sailean, ardao kanten sailen dakar. Baina guk gabon kanten lotzen dogu. Durangoko plateroek be oso kantu antzeko bat dabe. Ez dakigu Durangoko plateroek sortua dan eta gero herritartua eta tradizionalizatuta. Edo eurek herri kanta bat hartu eta egokitu eben. Bietara joan leiteke bidea: kanta bat norbaitek sortu eta gero herrikotu edo alde-rantziz, herri kanta bat hartu, euren ikutua emon eta hori gero herrira joan leiteke. Bideak era guztietakoak dira. Askotan jendeak ez daki kanta bat nork sortu duen... 'Mesias sarritan agindu zana' gabon kanta eliza guztietan kantatzen da. Hori durangar abade batek sortu eban, Balbino Garitaonandia. Jendeak ez daki eta herritartu egin da, tradizionalizatu egin da. Batzutan, norbaitek sortzen dau eta herriko bihurtzen da eta beste batzutan herriko gauza batzuk harturik norbaitek zerbait sortzen du. Edo gehiago, herriko zerbait hartu, norbaitek forma emon eta barriro herriko bihurtu leiteke.

Zortzi galdera labur

Liburu bat: Lizardiren 'Biotz-begietan'.

Kantu bat: 'Lili Marlen'.

Pelikula bat: Bi. 'La estrada' eta

'Erase una vez en America'.

Leku bat: Praga, baina ez naiz oraindik egon.

Janari bat: Bakailaoa pil-pil eran.

Mendia ala hondartza?: Mendia. Hondartza jenderik ez dagoenean.

Kirol bat: Markinarra izanda, zesta-punta.

Ametsa bat: Beti zoriontsua izatea.

Zer pentsatzen duzu tabako lege berriaz?



IBON
(BOLUETA)

NIK EZ DUT ERRETZEN ETA HORREXEGATIK ONDO IKUSTEN DUT LEKU PUBLIKOETAN ERRE EZIN IZATEA. ERRETZEN DUENAK DIO BERE ESKUBIDEA KENTZEN DIOTELA BAINA ERRETZEN BADUTE GURI KALTE EGITEN DIGUTE.



XABIER
(SANTUTXU)

ONDO IKUSTEN DUT. NIK EZ DUT ERRETZEN ETA GU ORAIN HOBETO EGONGO GARA.



IKER
(TXURDI-NAGA)

BERDIN ZAIT.

GAUZA DA JENDEAK NORMALEAN ERRESPEKTATZEN DUELA. BATZUK KEXATZEN DIRA BAINA NORMALEAN ERRESPEKTUA BADAGO. ETA LEGEA ZORROTZA DA, ZORROTZEGIA.



MARTA
(SANTUTXU)

ONDO DAGO ZEREN INORK EZ BADU ERRETZEN EZ DUGU KEA USAINDU BEHAR.

AMAIA
(TXURDINAGA)

TXARTO DAGO. ERRE NAHI IZANEZ GERO, KALEAN EGON BEHARRA ERE! IKUSI BEHARKO ZER GERTATZEN DEN.




ELENA
(SANTUTXU)

EDERTO. BATEZ ERE TABERNETARAKO. ETA LAN TOKIETARAKO ERE BAI.



ISABEL
(BEGOÑA)

EDERTO. EGIA ESANDA, TABAKOA IXTEN LAGUNDU DIT. HAMABOST EGUN DIRA EZ DUDALA ERRETZEN.



GAIZKA
(ZAZPI KALEAK)

LAN TOKIETAN, ONDO IKUSTEN DUT. INOR MOLESTATU EZKERO, ONDO. BAINA DEBEKUA DEBEKUAGATIK EZ. TABAKOAK ASKOZ JENDE GEHIAGO HILTZEN DU KANUTOEK BAINO. ETA TABAKOA LEGEZKOA DA ETA KANUTOAK EZ.

Mahatserrian azkenokaz izan direnak

Santutxuko jubilatuek kalera eramane dute Bilboko Udalaren planen kontrako protesta

Euren lokala zarratu edo esku pribatuetan utzi ote duten beldur dira

Abenduaren 22ko iluntzean mila eta berrehu-
netik gora lagun Santutxuko kaleetatik mani-
festazioan ibili ziren jubilatuen lokalaren
defentsan. 2006 hastearrekin batera Bilboko

Udalak hartuko du bere gain eta udal aginta-
rien planak ez dira zaharren gustukoak. Bes-
teak beste, Bilboko Udalak lokala pribatizatu
gura duela salatu dute.

Jende asko irten zen kalera abenduaren 22ko iluntzean. Elkartasun plazatik 1.200 lagun atera ziren manifestazioan. Pankartan 'EAJ-EB-EA, hirugarren adinaren pribatizaziorik ez. Gure lokalaren eskubide historikoen alde' idatzi zuten, erdaraz. Iluntze hotza zen, bost gradutik beherakoa. Hala ere, jendetzak behin eta berriz udal agintarien asmoen kontrako deiadarrakaz



egin zuen bidea. Pribatizazioaren aurkako oihuak, EAJ, EB eta EAren kontrakoak, eta umore kutsuko leloak ere -'ea, ea, ea, los viejos se cabrean!'- aldarrikatu zituzten.

Ez da hori abenduko mobilizazio bakarra. Beste bi egin dituzte Bilbo erditik, Iñaki Azkunaren udal taldearen asmoak geldiarazteko asmoz.

Jakina denez, Santutxuko, Deustuko eta Indautxuko jubilatuen etxeak Diputazioaren esku egon izan dira aurrean. 2006tik aurrera Bilboko Udalaren ardurapean geldituko dira. Hasieran hiru zentroetako erabiltzaileak kontra agertu ziren, baina abenduan Indautxukoek akordio bat lortu dute Udalarekin. Santutxu eta Deustukoak, osteraz, ez.

Santutxuko jubilatuen eskaria argi-argia da: eurek ez daukate jabetza kontu horren gainean ezelango ardurarik eta, ondorioz, ez dute hortik etor daitekeen aldatetarik onartuko. "Konponbidea gata da. Guri berdin digu nork daukan lokalaren ardura. Dena lehengo moduan jarraitzea nahi dugu", esan du Santutxuko lokaleko jubilatuen bozemale batek.

PRIBATIZAZIOA

Prozesua berez luzea eta gorabeheratsua izan da. Orain arazo nagusia da Bilboko Udalak ezarri gura duen kudeaketa sistema. Lehenengotan lokala zaharrek eurek gestionatzea proposatu zuten udal arduradunek. Jubilatuek ezetz erantzun zuten, ozen baino ozenago. Pankarta bat be ezarri zuten

euren lokalean, Bilboko Udalak autogestioa inposatu gura zutela salatu.

Ezetzta ikusita, Gizarte Ekintzako zinegotzi Jon Sustaxak (EB) bestelako proposamena egin die: "Ikusita ez dutela kudeaketa euren eskuetan hartu nahi, zeregin horretan lagunduko dieten pertsonala topatuko diegula agindu diet", kontatu du.

Hala ere, ideia horri ere muzin egin diete

jubilatuek. Euren iritziz, hori lokalaren gestioaren pribatizazioa izango litzateke, enpresa baten eskuetan lagatzea hain



zuzen. Eta ez daude hori onartzeko prest. Horregatik, azkenaldion euren protestak pribatizazioa salatzen bideratu dituzte.

Izan ere, eurek argi daukate: "Guk lehengo moduan jarraitu nahi dugu, lokalaren ugazaba Diputazioa ala Udala izan".

Txurdinagako zaharren egoitza itxiko ote duten beldur dira langileak

Egoitzak ez du pertsona gehiago hartuko eta daudenak beste inora bidali nahi dituzte

Txurdinagako zaharren egoitza ixteko prozesuan dagoela salatu dute langile eta sindikatuek. Oraingo egoitzak ez du pertsona gehiago hartuko eta daudenak beste inora bidaltzekotan daude. Izan ere, Txurdinagako etxean bere kabuz moldatzen diren adi-

neko pertsonak daude. Horiei zerbitzu ematea ez da Diputazioaren zeregina eta hortik ei dator erabakia. Sindikatuek pribatizazioa dela salatu dute eta langileen zein edateko pertsonen geroaz kezkatuta daude.

Txurdinagako zaharren etxeak ez du adineko pertsona gehiago hartuko. Erabakia hartuta daukate Diputazioaren IFAS institutuko arduradunek. Egoitza hori Espainiako Inersotik Eusko Jaurlaritzara eta azkenean Foru Aldundira pasatu zen eta bere kabuz konpontzen diren pertsonen zuzenduta dago. EAEko Kontuen Epaitegiak argi utzi du egoitza hori dependentsia daukaten pertsonentzat izan behar dela. Horientzat Diputazioak hiru etxe dauzka Gallartan, Leioan eta Elorrrion.



Gaur egun 117 pertsona daude Txurdinagan. Larrien dauden 37 beste egoitza batzuetara eramatekotan daude. Informazio batzuen arabera, urtarilaren 15a baino lehen aldatuko dituzte. Bertako langileak 81 dira. Diputazioaren arduradunek zentroarekin zer egin pentsatzen dihardute.

Batzuek diotenez, eraikina bota eta berria egingo dute, bere oraingo egiturekin ezin dituzte pertsona dependienteak bertan hartu. Izan ere, oso eraikin bitxia da Txurdinagako egoitza, arkitektoek eta sarritan aipatu eta estimatuta. Aldundiko bozemaileek esan dutenez, hala beharginei nola zaharrei, aterabide egoikiak eskainiko dizkiete.

Beharginen kasuan denak ez dira fijoak. Langileak beldur dira horiekin zer gertatuko den. Besteak ere egoitza zarratu ezkerora nora eramango dituzten ez dakite.

Erabiltzaileen aldetik ere, informazio faltaz kezatu izan dira azken egunotan. Egoitzako adineko pertsonen eta euren senitartekoen ez dute etorriko diren erabakien gainean ezelango informaziorik jaso.

ITXIERA

Foru Aldundiko IFASEko sindikatuek eta egoitzako langileek eurek ez dute horrela ikusten. LABek gogor

salatu du Foru Aldundia zerbitzu sozialak ixten ari dela eta, Txurdinagako egoitza zarratekotan daudela. "Ez da bat-bateko erabakia izango, faseka baino", esan dute sindikalistek.

Sindikatu abertzalearen iritziz, benetan gertatzen dena da "plazak pribatizatzen ari direla". Izan ere, Txurdinagako egoitza aspaldian egokitu behar zuten pertsona dependienteak bere baitan hartzeko, sindikatuak salatu duenez. Oraingo egoerari alternatiba bakarra aurkezten dio Foru Aldundiak, sindikalisten uste-tan: adineko pertsonak egoitza eta enpresa pribatuen esku uztearena.

BESTE KASU BATZUK

LABek Txurdinagako egoitzarekin gertatzen ari dena aitatu eta gero, beste kasu batzuk ere salatu ditu. Besteak beste, Barakaldoko jubilatuen egoitzarena. Hura ere bertako Udalaren eskuetan laga nahi du Foru Aldundiak, lehenago Santutxu, Indautxu eta Deustuko lokalekin egin zuen bezala.

UGTk, bere aldetik, adineko pertsonak IFASetik atera nahi dituztela esan du. Azkenik, beharginak eurak be batzarrak egin dituzte egoera zein den jakiteko. Datozen asteotan argitu beharko da egoitzaren, beharginen eta bertako adineko pertsonen etorkizuna zein izango den.

MAHATSBERRIAK

MAHATSBERRIAK

Bilboko Udalak Azurlekuko espaloiak eta lorategiak egokituko ditu

Lanak egiteko hamaika hilabete beharko dituzte

Azurleku auzoko espaloiak hobetu, lorategiak atondu, ur eta saneamendu sarea berri-tu eta aparkalekuak markatu gura ditu Bil-

boko Udalak. Lan guztiok egiteko hamaika hilabete beharko dituzte eta, denetara, 1.400.000 euro gastatu beharko dituzte.

Sagarminaga etxe-mul-tzoa urbanizatu eta gero, Bilboko Udalak Azurleku hartu gura du hobekuntza integrala egiteko. Basar-rate landaren ondoan, Azurleku etxe altuez osatutako eremua da, bere baitan espaloï estuak, autoek bereganatu duten espazio zabala eta lorategi batzuk dituena. Eskailerak ere ez dira falta.

Egoera hori iraultzeko asmoz, Bilboko Udalak hamaika hilabetetan gau-zatzeko lanak hasi nahi ditu. Aparkalekuak eta errepidea dagozen lekuetan espaloiak zabalduko dituzte, etxeetarako sarbideetako aldatsak txikiago egingo dituzte eta behegaina konponduko dute oinezkoen ibilerak errazteko.

Hala ere, udal agintariak jakinarazi dutenez, ahalik eta aparkaleku gehien eskainiko dituzte, horretarako autoentzako bideak ongi markatuko dituztela.

Bestalde, aldaketa guzti horiekin oinezkoen per-tsonen erraztasunak eman nahi dizkie Udalak eta, bide batez, egoteko lekuak ere atondu gura ditu.

Lanak egin bitartean Bilboko Udalak beste zeregin



batzuk gauzatzeko apro-betxatuko du. Horrela, ur eta saneamendu sareak zeharo berriztatuko dituz-te. Gainera, auzoko argi-terria argi berriekin hobetu-tuko dute.

Herritarrok gozoago egoteko hiri-altzariak ere berri ipiniko dituzte. Eserlekuak, barandak, pape-rontziak,... denak berri-berriak izango dira.

Berritasunetan sartuta, lorategietako landaredia ere berri egingo dute, zuhaitz eta zuhaixkekin osatuz. Gainera, lorategi

gehiago jarriko dituzte. Berdegune guztietan ureztatze automatikorako instalazioa paratuko dute.

ZUHAITZAK

Alderdi horretan, Cocherito de Bilbao kalean, lugana edo ezponda dago. Udalarena da, izan. Orube hori lorategi gisa utziko dute, aldatsa txikiago eginenez eta bertan arbo-lak ipiniaz. Gainera bidea zabaldu egingo dute aparka-leku egiteko.

Bilboko Udalaren proiektuak Barruti Kontseiluaren oniritzia jaso du Auzokide Planaren barruan egiteko.

Hockeyko euskal selekzioak Txurdinagan jokatu zuen

Abenduaren 17 eta 18an hockeyaren 'katedrala' bila-katu zen Txurdinagako kiroldegia. Irristagailuen gaine-ko eta lineako euskal selekzioek Madril, Frantzia eta Kataluniako selekzioen kontra lehiatu ziren.

Lehenengo modalitateko taldean lau mahatsorrik jokatu zuten: Santxutxu Hockey Taldeko Jose Anta, Arkaitz Garai eta Ander Elorduy; baita, denboraldi honetan Donostiako Ibaiondoren atea babesten duen Mikel Prados ere. Euskal Selekzioaren entrenatzaile biak gainera, Santutxukoak ditugu, Fermin Sanchez eta Ramon Ozamiz.

Asturias eta Madrilen aurka aritu behar zirela iraga-rrita bazegoen ere, azken orduan eta abisatu barik,

asturiarrak ez ziren Txurdinagan agertu. Hori izan zen eguneko albiste nagusia, Euskadi-Asturias partida ikus-teko harmailak bete zituzten dozenaka zaletuen zorit-xarrerako.

Ikuskizun barik ez ziren geratu baina, Madrilen kontrako norgehiagoka bikoitza antolatu baitzuten. Etxeko taldea nagusi izan zen bietan, 9-5 eta 4-2 ko markagailuekin bukatu ziren larunbat arratsaldeko eta igande goizeko partiduak. Ezin ahaztu lau mahatso-riak fin ibili zirela. Zorionak!

Lineako patineko taldeak berriz, Kataluniaren kon-tra garaipena lortu zuen, baina Frantzia ezin izan zuten mendean hartu (1-10).

Urtebete Sorgintxulo barik

Lokalean lanak hasi dituzten bitartean gazteek manifestazio multzotsua egin zuten

Abenduaren 16an urtea bete zen Bilboko Udalak Sorgintxulo gaztetxea zarratu zuenetik. Urtebetean, oster, Sorgintxulo ez da desagertu, hamaika proiektu eta

protestatan azaldu delako. Urtea betetze-rakoan hasi dira Karmeloko lokal hori zaharrentzako egoitza lez atontzeko lanak.

Karmelo elizako lokala bost urtez egon zen gazteen esku. 2004ko abenduaren 16an, Ertzaintza eta Udaltzaingoa goi-zean goiz azaldu ziren, barruan zeu-den gazteak aterarazi eta gaztetxea itxiarazi zuten. Urte bete joan da harrez gero baina Sorgintxuloren izena ez da amata. Urtean zehar hainbeste protesta eta proiektu aurkeztu dituzte gazteek. Askotan Santutxuko elkartearen babesaz. Beste batzutan, auzotik kanpoko eragi-leen laguntzaz.

Abenduaren 16an, manifestazio multzotsua egin zuten gazteek Santut-xuko kaleetan barrena. Ehunka lagunek agerian utzi zuten urtebete geroago Sorgintxulo ez dagoela ez hilik, ez mutu.



Gainera, urtebe-

Bestalde, Durangoko Azokako atarian 'Ametsen baratza' liburua aurkeztu zuen Santutxuko Gazte Asan-bladak. Hamaika idazleren, argazkilariren eta ilustratzailearen lanak batu dituzte bertan. Obra horretako zenbait pasarte eta irudirekin erreztaldiak egiten hasi dira, gaztetxea izate-ko asmoa oraindik ere sendo-sendoa dela age-rian utziaz.

OBRAK HASITA

Jakina denez, Bilboko Udalak Karmeloko lokala hustu zuen bertan zaharrentzako egoitza egokitzeko aginduarekin. Lan horiek Dipu-tazioaren esku geldituko dira. Hala ere, urte-bete joan da obrak hasi aurretik. Hain zuzen ere, lehenengo urtea betetzear zegoela lehe-nengo makinak sartu dituzte lokalaren beheal-dean, sasoi batean Gaztedi dantza taldeak erabiltzen zuen lokalean alegia.

Alderdi hori hesiez inguratu dute eta hon-deamakinak sartu dituzte barrura. Goialdean, gaztetxea zegoen lekuan, ez dago obra mugimendurik oraingoz.



tetze horren inguruan bestelako protestak ere egin izan dira inguruetako ikastetxe eta auzoetan.

ASTEBURUAK 06

LIÉRGANES	168,00 Euro
ZARAUTZ	71,35 Euro
POTES	55,60 Euro
LLANES	50,00 Euro
NAVA	69,25 Euro

mikelizargi@euskalnet.net
Izargi Bidaiak

GRUPO STAR
www.ibiltari.com
burriaga, 69
Tel. 94 473 00 45
Fax 94 412 07 28
48004 SANTUTXU - BILBO

KAIKU
Munduko Herrien Btxea
Arzuaga 1 Santutxu

ADI
ASESORIA
FISCAL - CONTABLE - LABORAL
ARABO - MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiaseson@adi.euskalnet.net

Zergak-lan harremanak kontabilitatea juridikoa merkatalgintza



OLENTZERORI KANTATZEKO HOTZIK EZ

ESKOLA ETA IKASTOLA ASKOTAKO UMEK KANTU SAIOAK EGIN ZITUZTEN ABENDUAREN 23AN

Abenduaren 23ko goizean eskola eta ikastola askotako umeak kalera atera ziren, Olentzerori ozen kantatzeko. Hotz beldurgarriari aurre eginaz, ume eta gaztetxoek euren jolastokietan edo auzoetako kaleetan kantu kantari aritu ziren, ilusioz melatutako giro alai zabalduz. Guk kamera hartu eta ondoko talde hauek aurkitu genituen kantu kantari.



ZURBARAN ESKOLA.

Zubiria Ibarra eraikineko eskolan umetxoek urtero lez jolastokian egin zioten harrera Olentzerori. Kantuka eta olgetan harrapatu zituen txikitxoak mendiko bizardunak. Eta aita-amek goitik argazki eta bideo kamerekin grabatzen ekin eta ekin, detailerik galdu barik.




ZURBARAN ESKOLA.

Zumaia kaleko eskolan ere eguerdi aldean batu ziren ikasleak, gurasoak eta irakasleak jai giroan Olentzerori ongi etorria emateko. A zelako ilusioa aurrez aurre agertu zitzaizaien!



LUIS BRIÑAS ESKOLA.

Beste talde bat Bastida arkitektoaren plazan aurkitu genuen. Ez hotzik, ez dardararik, ondo prestatuta irten ziren eta. Hala ere, aukeran, hobeto eguzkipean!



LUIS BRIÑAS ESKOLA.

Santutxuko eskolako umeak auzoan zehar barreiatu ziren bazter guztietan kantatzeko: Basarrate, Iturriaga, Karmelo,... Lehen Hezkuntzako seigarren mailakoak honelaxe, kantu kantari, topatu genituen Maria Reina elizaren ondoan. Ederto egin zuten gero!



URIBARRI ESKOLA.

Urtero letxe, Uribarri eskolako umeak eguerdi aldera eskolako atariko mailtan paratu ziren eta Olentzerori ozen kantatu zioten. Aurrean publiko zabalzabala eduki zuten eta, egia esanda, hasieratik irabazita.



urretxindorra

urretxindorra
megadenda

9'30etatik
20'00etara

- > Eskola-liburuak urte osoan
- > Literatura denontzat
- > Material didaktikoa
- > Musika eta bideoa

Iparragirre, 28 (48011 Bilbo)
Tfnoa: 94 4240228

urretxindorra@megadenda.com
www.megadenda.com








iven a aprender euskara!
todos los horarios y niveles

Euskarak euskaldun egiten baitzaitu

P.Pernet, 9 Santutxu
4731460

Arbidea, 21 Txurdinaga
4117656



MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

hartu bertan etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Berton aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerre, 48004 Bilbo

Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
Abizenak:
Kalea: Zenbakia: Solairua:
Herria: Herraldea: Posta Kodea:
Telefona:
Bankua:
Kontu zenbakia (20 digito):

DOHAIN

DOHAIN

Sinadura

OKETA (1031 M.)
UBIDE

Pilotalekuaren atzealdetik, zubi bat gurutzatuz, bidexka bat hartuko dugu (ikurrak daude). Hor-tik aldats gora txiki bat igoz, ardi-korta pasatu eta gero pista zabal batera helduko gara (5').

Hemendik aurrera bide leun batetik igaroko dugu bidegurutze handi batera iritsi arte. Ezkerreko bidea jarraituz, laster harrizko lepo bat topatuko dugu.

Orain zuzen zuhaitz artetik (arriskutsua da bustita badago) harri gainera heldu arte. Hemen aurkitzen da Atxuri pasabide izeneko irteera txiki bat.

Aurrera jarraituz pixka bat beherantz pagadi eta harizti artean lautada batera irtengo gara. Apur bat geroago, beti zuzen eta ikurrak jarraituz, pago eta haritz artetik zabal handi batera helduko gara. Berton artzain etxola bat dago, baita gorosti handi batzuk ere.

Cure aurrean dagoen basotik, ia bide barik aldapa gogorrean ibiliko gara. Basotik irte-tan garenean lepo bat aurkituko dugu, harri artetik pasatu behar dena. Pixka bat geroago mugarri handi bat bezala ikusiko dugu gailurrean. Hantxe dago buzoia.

Pista asko dagoenez, eta aipatu ditugun harriz-




ko lepo eta baso bide horiek erre samar daude-nez, ez galtzeko, kontuz ibili beharko dugu eta hasieratik ikurrak jarraitu.

Sastreria PEDRO
IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO
Santutxu kalea, 37 www.bilbaoeb.com Spedro
Tfnoa: 944 128 714 E-Mail: iban.lopez@navigalia.com

HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE
GABRIEL ARESTI, 30 4. G
TXURDINAGA
94 412 82 74

MESÓN GURETXE
Santutxuko poteo gunean



Testua: Eneritz Ibarrondo
Argazkiak: Iñigo Azkona

Mendebalde kultura alkarteak argitaratu du Iñaki Gaminde-ren azken liburua joan berri den Durangoko Azokarako, 'Sorginakaz jantzan'. Izenburuak berak esaten digun bezala, sorginen inguruan diharduen liburua dugu hau. XX. mende amaieran eta XXI.aren hasieran Bizkaia euskaldunetan bildutako hainbat istorio, sineskera eta kontakizunek osatuko dute liburua. Jendearen ahoan dabilzan 300 bat istorio edo testu zati batu ditu Gamindek liburu honetan; 60 edo 65 herrietan bildutako istorioak; ahozko testigantzaren bidez bildutakoak. Gehien-gehienak, Bizkaiko baserri eta herrietako bizilagunen ezpainetan entzun zituen Gamindek.

HERRIAREN GOGOAN

Sorginen inguruko istorio eta sineskerak bildu ditu idazleak liburuan, baina ez edozein sorginen ingurukoak. Berak

IÑAKI GAMINDE

"Hemen agertzen diren kontakizunak, aspaldiko urteotan batu ditudanak dira"

Sorginen inguruko hainbat kontu azaltzen dira Sorginakaz jantzan liburuan

Iñaki Gamindek liburu bi plazaratu ditu abenduan. Alde batetik, 'Sorginakaz jantzan' izenekoan sorginen gaineko kontakizunak batu ditu. Bere ikertzaile lanetan han-hemenka bildutako testigantzak ekarri ditu Txurdinagako ikertzaileak. Bigarren liburuan, Derioko ahozko euskara aztertu du.

esandakoaren arabera, jendeak nahastu egiten ditu sorgin mota ezberdinak. Elizak sortutako sorginez gain, beste mota batzuk ere badaude, herriaren gogoan bizi direnak. Gamindek, horien inguruko interesa izan du betidanik, eta hauen inguruan ikertzeari ekin dio.

Hilabete pare bat eman ditu idazleak liburua idazten, baina ikerketa lanak hogeita sei bat urte iraun ditu. Bestelako ikerketak egiten zituen bitartean idazleak sorginen gaineko kontuak batu izan ditu. Material nahikoa zuela ikustean erabaki zuen Gamindek liburua idazten hastea. Dena den, ikertzeko arlo gehiago dagoela esan digu, "gauza hauek ez baitira inoiz amaitzen".


DERIOKO EUSKARA

Bestalde, abenduan bertan Iñaki Gamindek beste liburu

Dordoka
TABERNA
Pza. San Martín de la Ascensión
SANTUTXU

ANGEL
HARATEGIA - URDAITEGIA
Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

Kafe
Mañari
Médico M. Pedro Cortés, 9
48006 BILBAO Telf. 94 411 99 33



berri bat plazaratu du: 'Derioztarren euskara'. Lan horretan Txorierriko herri horretako ahozko hizkeraren ezaugarriak jaso ditu. Iñaki Gaminderekin batera, Esther Elgoibar, Jon Gaminde, Oihana Astobieta, Ziortza Sanz eta Atotz Goikoetxeak hartu dute parte. Lana Derioko Tximintx euskara elkarteak argitaratu du.

Liburu horrekin Gamindek segida eman dio bere orain arteko lan ikaragarriari. Hainbeste dira honez gero bere ahozko euskara liburu edo CD baten batu eta argitara eman dituen herriak. Zamudio Txorierrin, Berango Uribe Kostan, Bakio kostaldean, Meñaka Uriben,... eta, zelan ahaztu, Bilbo bera ere.

Sorginak Begoñan

Iñaki Gamindek Euskal Herria osoa korritu du ahozko euskara jasotzeko ahaleginean. Hamaika kontu, pasadizo eta ipuin entzunda dago. Orain, Bizkaian jasotakoan artean hautaketa bat egin eta sorginekin lotutakoak liburu baten batu ditu. Bere ibilbidean, jakina, Bilboko euskaldunengana jo izan du sarritan. Begoñako euskaldunen ezpainetan sorginak agertu izan zaizkio, beste leku askotan letxe. Gamindek azaldu duenez, "sorginek ere, behin baino gehiagotan iriteten izan dute bideetara; irtenaldi horietan argi gorriak erabiltzen ei dituzte gure lekukoaren arabera". Eta non batzen ziren? "Arbolantxa aldeko Sorginzulo deritzon lekuan biltzen ei ziren Artxandatik baxatzen ziren sorginak". Arbolantxako bizilagun batek holantxe kontatu zion: "Hemen, Albantxagane da hori Albantxagane, hau da Albantxa ez? Eta Albantxagane da atzenengo etxea dagoana hor, eta hor urten ebalu sorginak, gauetan eta, ez dakit ba baten bat ikaratu egin bazan edo zer zan, eta ikusi ebalu, zer gorri bat holako linterna baten moduan hango arbolan, han Larraben, arbolan daukat entzunda nik". Ez da hori sorginekin lotutako gure paraje bakarra. Uribarri gaineko Urgogor base-riaren inguruan be antzeko kontuak esaten izan dira.

Eta sorginak ez ezik, laminak be topatu zituen Gamindek bilbotar euskaldunen ahotan,... baina horiek beste baterako lagako ditugu.

GOIAN S.C.L.

LAN BERTIKALAK

Pintura lanak etxaurre eta patioetan
Ke-irteerak eta Ur-hodiak
Eraikinetako edozein konponketa

ANDAMIO BARIK

TELEFONOAK:

630 08 09 38

659 45 16 22

horoskopoa

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Olentzerok ekarritako ikatz guzti horregaz... zer egin behar dozu?

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Olatu ganean ederto zabilz gero, eh? BECeko olatua ez zenduan zuk hasiko ezta?

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Ez zaitez, ez zaitez, ez zaitez joan oraindik. errondarik ez dozu paga-eta.

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Eginda dago. Orain, urte barri, leku barri, gustura jarri. Dena ederto joango da.

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Parrandarik parranda, elegante bazkalduta eta bapo afalduta, samea busti-bustita,... Zu zara gabonak kritikatzeko gau ta egun dabilena?

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Ez dogu etsi behar. Ez horixe. Egunen baten, lortuko dogu. Bitartean, segi gabon kantak abesten, ea disimuluan pasatzen garan...

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Euria, hotza, larreetan leia, mendi altuan edurra, bota sutara egurra, neskatil galanten amak... mutil zantarren beldurra.

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Iturriaga eta Egaña, Maialen eta Amets, Esan geuntsun ba, koadrila horregaz Barakaldon egun pasa egitea merezi dau.

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Salbatuta gagoz, Barakaldoko errubioa arduratuko da. Orain Kopa irabazi eta Txapeldunen Ligara ea garaiz ailegaten garen... Barrerik ez egin gero!

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Txikerretarik euki dozu joerea eta orain ukatuko dozu? Esan ba, harro-harro, beharra nahiago dozula oporrak baino, bakazinotan gogaitu egiten zareala.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Aurpegia zurbil, begirada galduta, ... Bidea galduta ala maiteminduta?

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Ez etsi! Eutsi! Aurrera atarako dogu-tHi ez haz azti igarlea izango, ezta? Horoskopoa egiteko fitxatu beharko haugu...

agenda

URTARRILAK 5
ERREGEEN KABALGATA.
SANTUTXUN. SANTUTXUKO
MERKATARIEN ELKARTEA.

URTARRILAK 11
MARKELIÑE. 'LAU BIHOTZ'.
BILBOROCK. 20:00ETAN.

URTARRILAK 13
PRESOEN ALDEKO MANIFESTAZIOA.
HERRIRA PLATAFORMAK DEITUTA.
20:00ETAN.
RITXI PLAZAN.

URTARRILAK 15
TXIRRI MIRRI ETA TXIRIBITON.
'MIRRI-TEL'. BILBOROCK
ARETOAN. GOIZEKO 11:00ETAN
ETA 12:30ETAN.

URTARRILAK 18-24
BILBOKO GAY-LESBO-TRANS 3.
ZINEMALDIA. BILBOROCK
ARETOAN.

URTARRILAK 22
TAUN TAUN TALDEA.
UMEENTZAKO ANTZERKIA.
'GAITZERDIA'. BILBOROCK
ARETOA. 12:00ETAN.

URTARRILAK 25
KOLDO IZAGIRRE. IRAKURLEAREN
TARTEA. ASAPALAK
ANTOLATUTA. ARBIDEA
KALEKO EUSKALTEGIAN.
20:00ETAN.

URTARRILAK 26
GONTZAL MENDIBIL. ARRIAGA
ANTZOKIAN. 20:00ETAN.

